



Tokio 2020, saria eta esperientzia

Olinpiar eta Paralinpiar Jokoetan parte hartu duten Nahia Zudaire Borrezo eta Maialen Chourraut lurramendirekin solastu gara / 8-9

NAHIA ZUDAIRE BORREZO/TXINTXARRI

Aisialdiko ikasturtea martxan

Lasarte-Oriako haur eta gazteek Amaraun zein Gazte Klubetan, Kuadrillategin edo Faktorian parte hartzeko aukera dute / 6

Hondakin ugari bildu dituzte herritarrek Ori ibai inguruan, Aste Berdearen bigarren jardueran / 2

Iraila agurtzeko, Azken Ostirala egin dute lasarteoriatarrek, Sarek deituta. Presoak gogoan izan dituzte / 3

Udal Euskaltegian hasi dute ikasturte berria. Ehun ikasletik gora arituko dira euskara ikasten / 4

Pablo Barrio herritarren 'Dzist-Dzast' lana saritu dute Nafarroan / 5

Intza Kirol Elkarteko seniorrek ez diote aukerarik eman Behar Zanari eta 22-1 irabazi dute / 10

1a 500 partaide izan ditu III. Mendi Festak; antolatzaileak "oso-oso pozik" daude egindakoarekin / 11

BACK TO WORK

2 MÓ
229€

progresibo erreflexuen aurkako lenteekin



Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE-ORIA

MULTIÓPTICAS

www.multiópticas.com   

Ahaleginaren emaitza, kezkatzeko modukoa

Aste Berdearen bigarren jardueran parte hartu dute 40 bat herritarrek: Oria ibaiertza garbitu dute. Bi orduz besterik aritu ez badira ere, hondakin ugari pilatu dituzte, poltsa eta kubo ugari betez: latak, botilak, burdinak eta plastikoak, besteak beste

Maitane Aidanondo

Urak eta lurra haieran utzitakoa gorde egin dezakete, baina ez desagerrarazi: lehenago edo geroago agertu egingo da. Hori ez bazekiten, bertatik bertara ikusteko aukera izan dute Oriaren ibaiertza garbitzen aritu direnek. Artelatz Ingurumen Zerbitzuak eta Lasarte-Oriako Udalak antolatutako jardueran 40 bat herritarrek parte hartu dute, artean, Agustín Valdivia alkatea, Maite Iglesias eta Nagore Duran zinegotziekin batera. Pala eskuan, partaideek zaborra eta zakur kaka jaso dute Zumaburu parkean eta Michelin inguruan. Eta ez gutxi. Bi orduko ahaleginaren emaitza kezkatzeko modukoa izan da.

Zumaburu parkea elkargune zuten ibaiertzaren garbiketan herrikoian izena eman zutenek. Artelatzeko kideek jardueraren nondik norakoak azaldu dizkiete eta taldeak osatu dituzte. Ondoren, materiala hartzen

joan dira: palak, kuboak, zakuak, poltsak... Hamabost bat lagun parkean gelditu dira, gainerakoek, berriz, Michelin kirolgunearen ingurura bidea hartu dute.

Poltsak eta kuboak betetzen

Parkean gelditu dira udal ordezkariak zenbait familiarekin. Bi gune zehaztu, eta poliki-poliki aurrera egin dute partaideek. Batzuek plastikoak, zigarropuntak, botilak, gozoki paperak... bildu eta zakuetan jaso dituzten bitartean, beste batzuk zakurren jabeek garbitu beharko luketenaz arduratu dira. Ez dute asko bilatu behar izan, arretaz begiratzea nahikoa da halakoak aurkitzeko. Minutuek aurrera egin ahala, poltsak eta kuboak betetzen hasi dira.

Bigarren gunean aritu direnak ere ez dira aspertu. Bertan topatutakoak, gainera, ikusgarriagoak izan dira, bolada luze bat bertan igaro izanaren

itxura zuen alfonbra, kasu. Beste batzuk, tamalez, ezin izan dituzte zeuden tokitik atera, aitzurrarekin lurra zulatu arren: bizikleta zati bat eta hodi hori luze bat.

Gaztetxoak, uretan

Landaredian murgilduta ibili direnek zuhaitzetan zintzilik zeuden soka modukoak eta plastikoak askatzen lan eskerge egin dute. Gaztetxoek, aldiz, nahiago izan dute uretan sartu, ez ordea, goizeko beroari aurre egiteko; freskoago egon badira ere, gogotik lan egin baitute. Bertatik ateratakoen artean, latak, burdinak, edo plastiko botilak.

Abiapuntura itzuli aurretik, betetako zakuak eta trasteak kotxean sartu dituzte partaideek. Bi orduz besterik aritu ez direla jakinda, zer pentsa ematen du pilatutako guztia ikusteak. Ingurumenaren alde egindakoa eskertzeko, hamaiketako batekin bukatu dute jarduera.



Partaideek makina bat zabor jaso dute Oria ibaiertzan. TXINTXARRI



Gaztetxoek nahiago izan dute uretan topatu dutena garbitu. TXINTXARRI

Europako Mugikortasun Astearekin bat egin du herriak

Okendo plazan eta Kale Nagusian aurrera eraman dituzte mugikortasun iraunkorra sustatzeko ekimenak eta jolasak

Txintxarri

Europako Mugikortasun Astearekin bat egin du Lasarte-Oriako Udalak. Hala, mugikortasun iraunkorra sustatu eta espazio publikoa betetzeko asmoz Artelatz Ingurumen Zerbitzuak-ek antolatutako zenbait ekimen aurrera eraman dituzte Okendo plazan eta Kale Nagusian.

Bi ibilbide aukeran zituzten bizikleta martxan parte hartu nahi zutenek, baina gutxi izan dira horretara animatutakoak. Abiapuntu zuten Okendo plazan,

ordea, ilaratxoa osatzen joan da bigarren eskuko bizikleta azoka zabaltzeko ordua hurbildu ahala. Gehienek aurrez ikusitako beste inork baino lehen erosteko asmoa zuten. Helduek 115 patin eta bizikleta artean pagotxa bilatu bitartean, haurrak bertan zeuden patinak probatzen aritu dira.

Erosi aurretik bizikleta gainean ibili nahi izan dutenei itxuratik irteten utzi diete arratsaldeko lehen orduan, gerora, berriz, ez. Izan ere, zabalgunean aurtengo berrikuntzetako bi diren irakurketa txokoa eta informazio



Zinta lasterketa izan da arrakasta gehieneko jolasetako bat. TXINTXARRI

mahaia jarri baitituzte. Azken honetan, herri inguruko ibilbideak ezagutzeko eta haiek erregistratzeko dauden gailu mugikorretarako aplikazioen erabilera azaldu die antolakuntzako kide batek.

Ohiko jolasak plazatik kanpo eraman dituzte aurten. Kale Nagusia ibilgailuei itxi, eta errepidea baliatu dute horretarako. Tajamar biribilgunean hasita, Usurbilgo Lanbide Eskolak ekarritako auto eta bizikleta

elektrikoaren berri izan dute. Ondoren, zenbait mahai jarri dituzte musera jokatzeko, baina lehen erabiltzaileak haurrak izan dira, eta haiek beste karta joko batzuk nahiago izan dituzte.

Zinta lasterketa eta trebetasun zirkuitua izan dira arrakasta gehien izan duten jolasak. Lehen orduan, hiruzpalau haur besterik ez bazebiltzan ere, arratsaldea aurrera joan ahala, ilarak luzatzen joan dira. Trebezia gehiago edo gutxiago izan, berdin-berdin ondo pasatu dute denek. Pilaketak egon ez zitezten, aukera berriak proposatu dizkiete antolatzaileek. Esaterako, makil batekin uztaila biraka eramatea, lokotx biltzea edo sokatiran saiatzea.

Horietan guztietan ari ziren bitartean, ipar martxako kideek erakustaldia egin dute erdigunean barrena, Okendotik abiatuta.

Iraileko Azken Ostiralak ere ez du hutsik egin

Elizate plazan elkartu dira presoek eskubideak aldarrikatzeko, eta ordu laurdeneko egonaldia egin ostean, Okendo plazara lekualdatu dira. Aitzol Iriondok eta Ibon Fernandez Iradik idatzitako gutuna irakurriz hasi dute elkarretaratzea

Txintxarri

Lehen tantak erortzen hasi ziren ekintzan parte hartu zuten herritarrek eliza ingurura bertaratzen ari zirela. Bidea osatu, eta plazara heldu zirenean, euria ari zuen. Hala ere, eutsi egin zioten erabakitakoari eta biribila osatu zuten Ioritz Iparragirrek esan beharrekoak entzuteko, zehazki, Iriondok eta Fernandez Iradik Lannemezango kartzelan idatzitako gutuna irakurri zuten.

Bertan jaso dutenez, "zapalkuntza desberdinei aurre egiten dieten" hainbat belaunalditako kide elkartu dira kartzesla hartan. Lotzen dituen "haria" eta "herri komunitate" egiten dituen "herri batekin eta borroka desberdinekin" duten konpromisoa da. "Indar bat zapalkuntza desberdinei aurre egiten diena, bizigarriak diren bizitzaren alde egiten duena, espetxean nahiz kalean borrokan diharduena".

Euria gogotik ari zuen Ixiar Arteagak mikroa eskuan hartu zuenerako. Entzuten zuden gehienek ez zuten aterkirik, horregatik, Sarek eta Etxeratak adostutako idatzia irakurri beharrean, ideia nagusiak



Hilabetero bezala, Azken Ostiralean elkartu dira herritarrek. TXINTXARRI

laburbildu zituen, eta udaltxearen arkupeetan aterpe hartu zuten.

Deitzaileek bidalita, TXINTXARRI-k bazuen irakurtzekoak ziren testua. Idatzian ageri da sakabanaketaren ondorioz "zuzenean edo zeharka" hildako 35 presoek eta 16 senideei aitortza ofiziala egiteko eskaria, auto istripu batean Inaki Saez eta Asier Heriz soraluzetarra hil zirela bi hamarkada bete direla baliatuta.

Memoriarekin batera, denek giza eskubideak errespetatzea ere defendatu dute. Pasa den asteburuan, irailaren 25ean, Arrasaten egitekoak ziren martxarekin gertatutakoa presoek giza eskubideen

defentsa "desitxuratu eta kriminalizatze" saiakeratza jo zuten. Horren aurrean, mobilizazio sozialaren garrantzia nabarmendu zuten euskal presoek "legeria arrunta" ezartzeko eta "ibilbide juridikopenitentziarioari oztoporik ez jartzeko". Hori horrela, urriaren 23an Donostian egingo duten manifestazioan parte hartuzera deitu zuten.

Espetxe politikan irizpide humanitarioak aplikatzeko ere eskatu zuten, "urte eta erdi geroago, presoek oraindik ere ezin dute familia-harremanik izan", eta gaixotasun larria duten hemeretzi presoak eta 65 urtetik gorakoak aske uzteko beharra ere adierazi zuten.



NEURE KABUZ

GORKA ALVAREZ

Amildegia digitala

Ez nator sarearen, pantailen, ikus-entzutekoen eta mundu digitala osatzen duten elementu guzti hauen inguruko aurkakotasuna adierazteko asmotan. Bereziki, ohiko erabiltzaile naizelako eta zalantzarik ez dudalako hauek gure bizitzetan izan duten eraginak onura asko ekarri dizkigula.

Banator ordea, gaur egungo testuinguruak bermaturik iritsi zaigun izurri berri baten inguruan idaztera. Amildegia digitala deituko diot. Amildegia, behin bertatik jausten zarenean ez baitago atzera pausorik. Erorketa motz edo luze baten amaieran atzera begirakoa egitea besterik ez da geratzen nahiz eta jakin errepasso antzua izango dela hau, tupust egingo baituzu ezinbestean lurrarekin.

Izaki digitalak omen gara gaur egun. Izaki diot askotan alde gizatiarrena alboratzeko ohiturak garatzen ditugulako. Arrakala digitalaz asko aritzen gara eta honek sortzen dituen genero, ahalduntze, maila sozial eta beste hainbat alorretan dakartzan alde eta desberdintasunez. Konsziente gara, baina oraindik ez gaude arazo honi aurre egiteko prestatuak eta nahia ere zenbaterainokoa ote den neurtu beharko genuke.

Arrakala horri estuki lotua ikusten dut amildegia digitala. Harremantzeko gure ohiturei loturikoa. Amildegian erortzen ari garela oroitzen dugu, nola garai batean lagun batekin hartzen genuen kafetxoan tabernan egunkarietako berriak irakurriz. Nola erosten genituen herriko denda txikian arropa zintzilikatzeko behar genituen pintzak eta era berean nola elkartze ginen lagun edo familiartekoekin urtebetetzeak ospatzeko edo horrela ez zenean, telefono deiekin ordezkatzutako momentu atseginak partekatzen genituen.

Egunkariak pantailaren bidez irakurtzen ditugu orain. Azkarragoa, erosoagoa eta merkeagoa denaren aitzakian lagunarekin kafea bigarren mailara bidaliaz. Herriko dendan izaten genuen elkarrizketa, alboratua uzten dugu interneteko erraldoi handietan pintzak eskatu eta egunean bertan etxeko atera ekartzen dizkigutelako eta lagunekin urtebetetzeak ospatzearen ere indarra galdu du. Ez al da ba politagoa bideotxo bat edota hiru hitzeko zorion agur bat bidaltzea mezularitza aplikazio batetatik lagunekin elkartu eta tarte eder bat pasatzea baino? Telefonoz deitzea ere. Hori ere egiteko gai ez gara izaten sarritan.

Amildegian gaude, zuloak sakonera handia dauka. Digitalizaturik bizi gara eta aro digital honek onura asko ekarri dizkigun arren, pandemiarekin nahastutako testuinguru honetan, koktel ederra prestatu digute egunetik egunera indibidualizatuagoa bihurtzen ari garen gizarte honetan.

Pertsonak pertsonekin bizi eta sentitzen dutela konturatzen ez bagara, pantailen, aplikazioen eta mundu digitalaren disdirak itxutzen jarraitzen bagaitu, askotan alboan, aurrean, atzean eta inguruan ditugun kaltetan eta azken batean norberaren aurkako ariketa antisozial batean jausiko gara behin eta berriro.

DOAKO IKASTAROK LANGILE ETA LANGABETUENTZAT

ESKAITZA IREKIKO IKASTAROK 2021eko ABENDUA arte

ELEKTRIZITATEA / ELEKTRONIKA

- Eraikinetako telekomunikazio-azpiegiturak muntatzea eta mantentzea

ADMINISTRAZIOA

- GOOGLE web orrialdeak
- KONTABILITATEA

MANTENIMENDUA /ENERGIA

- Hozteko ekipoak gas fluordunekin manipulatzeko
- 2D instalazio termikoaren diseinua: Autocad
- 3D instalazio termikoaren diseinua: Revit
- Hozteko Zentrala
- Termografia
- CO2-a Etorikizuneko hozgarria
- Argiztapen eraginkorra eta Dialux
- Oinarriko mantentze-lanak etxebizitzetan (Elektrizitatea eta iturgintza)
- Eraikinen Eraginkortasun Energetikoko parametro ekonomiko errentagarriak
- Aire girotuko instalazioak muntatzea eta mantentzea
- Eraginkortasun energetikoa uraren ziklo integralean

FABRIKAZIO MEKANIKA

- Txirbil-harroketak bidezko mekanizazioa
- Fusioa eta isurketa
- Fagor Torneado: prestaketa eta mekanizazioa
- Planoen interpretazioa
- Fagor 8050/55/65 fresagailuaren programazioa
- Elektrohigadura bidezko zehaztapenaren mekanizazioa
- Catia 1. maila: Mechanical Design
- CAM Gibbs Oinarriko marrubia
- CAM Gibbs fresa aurreratua
- CAM Gibbs oinarriko tornua
- CAM Gibbs tornu aurreratua

LANERAKO PRESTAKUNTZA

- Nola erabili asertibitatea komunikazioa hobetzeko eta arazoak konpontzeko
- Bezeroen arreta eta kudeaketa egoera desberdinetan
- Antolatua, lehenetsi eta hobetu zure emaitzak
- Adimen emozionala. Sentsibilizazioa. 1. maila
- Aurkezpen Eraginkorrek Publikoan

CIFP USURBIL LHII

Etarte bidea, 9 (Zubieta auzoa) 20170 Usurbil (Gipuzkoa)
www.lhusurbil.eus · cursos@lhusurbil.eus
943 36 46 00 (Luz. 78) · 667 415 810



TXINTXARRI PUBLIZITATEA:

Bertan zure zerbitzuak iragarri nahi dituzu?

publizitatea@ttakun.eus

943-37 14 48 (106)

646 82 44 66



Geltoki kalea 4,
Lasarte-Oria



Udal Euskaltegiko ordezkari eta ikasleak, udaleko Euskara batzordeburuarekin, eskolak hasi aurreko harrera ekitaldian. TXINTXARRI

Prest daude ikasturte berriari euskaraz ekiteko

Ehun ikasletik gora arituko dira aurten Udal Euskaltegian. Astelehenetik ostegunera izango dira eskolak eta A1 mailatik C1 mailarainoko eskaintza egin dute. Euskara ikasi nahi dutenek, oraindik izena emateko aukera dutela azpimarratu dute

Txintxarri

Karpetak eskuartean hartuta, gogotsu agertu dira Udal Euskaltegiko ikasleak lehen eskola egunera. Hilaren 27an ekin diote ikasturte berriari, eta klaseak hartu aurretik, euskaltegiko eta udaleko ordezkariak harrera egin diete. Lorendiñe Usarralde zuzendariak hartu du hitza lehenik, eta eskerrak eman dizkie ikasleei euskaltegian izena emateagatik.

Azken ikasturteko gorabeherak ere ekarri ditu gogora gero. Aitortu du, COVID-19ak eragindako pandemiaren ondorioz, ikasturte zaila izan zela iazkoa, baina ahaleginak egin zituztela aurrera egiteko, eta lortu zutela, denek batera, "lan txukuna" egitea.

Gaur gaurkoz indarrean dauden osasun neurriak hartuta emango dituzte eskolak aurten, baina iragarri du, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak neurriak malgutu edo aldatu

ahala, "beharrezko aldaketak" egingo dituztela euskaltegian.

'Euskaraz zabaldu aukerak'

Aurtengo leloari erreferentzia eginez jarraitu du hizketan. Euskarak *Mundu bat ezagutzeko aukera* eman diezaiekeela azaldu die ikasleei; lanpostu bat lortzeko edo herriko dendetan zein tabernetan euskaraz harremantzeko eskaini diezaiekeen aukeraz ohartarazi die.

Ikasturte honetako irakasleak aurkeztuz amaitu du bere hitzartzea eta, gero Jon Antxordoki Euskara batzordeburuari eman dio hitza. Usarralde egin bezala, eskerrak

**ASTELEHENETIK
OSTEGUNERA IZANGO
DIRA ESKOLAK.
SAREAN IKASTEKO
AUKERA ERE BADAGO**

eman dizkie ikasleei euskaltegian izena emateagatik.

Azaldu die udalak euskara sustatzeko egiten duen ahalegina "handia" dela: "Euskaltegia puntako baliabidez hornitu dugu, eta zerbitzua euskaltegiaren dinamikara eta ikasleen premietara egokitzeko egoitzaren birmoldaketa ere egin dugu". Aurrera begira bide berari eusten ahaleginduko direla azpimarratu du. Ez ditu aipatu gabe utzi euskara ikasteko udalak eskaintzen dituen bekak. Euskara ikastea "ia doakoa" izan daitekeela ohartarazi du: "Udalan indarrean dago beka sistema indartsu bat, Udal Euskaltegiko matrikularen %85a lagundu dezakeena, beti ere %85eko asistentzia betez gero". Beka horiek ikasturte amaieran eskatu behar direla argitu du.

Udal Euskaltegiaren atarian talde argazkia atera dute, eta eskolak zituzten ikasleak, ikasgelatara itzuli dira.



Urriaren 9ra arte izango da instalakuntza ikustera bertaratzeko aukera. TXINTXARRI

Zaintza lanak egiten dituztenen testigantzak entzuteko atea

'Mira' instalazio artistikoa ikusgai jarri dute, Okendo plazan. Zaintza lanen prekarietatea salatzea du xede

Txintxarri

Olatukoop mugimenduaren Kooperatibak Denontzat proiektuak instalazio artistikoa jarri du Okendo plazan. Etxe atari bat da eta zaintza lanak egiten dituzten emakume migranteek bizi duten egoera salatzen duen instalazioa. Postontzi beltz bat du atearik ezkerrean, eta bertatik ateratzen dira zaintza lanetan ari diren zenbait emakumeren ahotsak; lanean bizi dituzten egoeren berri ematen dute, eta bide batez, salaketa egin.

Entzun daiteke, adibidez, astelehenetik ostiralera etxe batean lan egiten duen emakume baten kontakizuna. Baldintza horietan lan egitearen ondorioz, bere seme-alabak asteburuetan soilik ikus ditzakeela kontatzen du, eta egoera horrek ezinezona sortzen diola ere azaltzen du. Kontraturik gabe, eta baldintza kaskarretan lan egiten dutenen testigantzak ere jaso daitezke.

Urriaren 9ra arte izango dute herritarrek instalazioa ikustera joateko aukera.

Herriko zazpi kultur eragilerekin hitzarmenak sinatu ditu udalak

Kultur eragileen jarduna babestuko duten hiru urterako zazpi lankidetzak akordio sinatu dituzte

Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak lankidetzak hitzarmenak sinatu ditu herriko zazpi kultur eragilerekin: Lasarte-Oria aldizkaria, Zero Sette akordeoi taldea, Semblante Andaluz elkarteak, Alboka abesbatza, Zurmailu zurlanketa elkarteak, Erketz dantza taldea eta Kukuka antzerki eta dantza eskola. Elkarte edo talde bakoitzeko ordezkariak arduratu dira akordioak sinatzeaz.

Horien bitartez, eragile bakoitzaren zenbait jardura

edota egitasmo babestuko ditu udalak. Hiru urterako akordioak sinatu dituzte denek ala denek.

Hau da kultur eragile bakoitzak jasoko duen diru laguntza: Lasarte-Oria aldizkariak 10.743,19 euro, Zero Sette akordeoi taldeak 10.282 euro, Semblante Andaluz elkarteak 11.986 euro, Alboka abesbatzak 11.986 euro, Zurmailu zurlanketa elkarteak 25.545 euro, Erketz dantza taldeak 11.465 euro eta Kukuka antzerki eta dantza eskolak 11.986 euro.



Pablo Barriok Iruñeko Udalean jaso du Nafarroako Haurrentzako Antzerki Testuen Lehiaketako saria. IRUÑEKO UDALA

Eguneroko tentsioez hausnartzeko modu bat

Pablo Barrio idazle lasarteoriatarrak hirugarrenez irabazi du Nafarroako Haurrentzako Antzerki Testuen Lehiaketa, 'Dzist-Dzast: Flamenka, endredo ugari han-hemenka' lanarekin. Obraren nondik norakoez eta antzerkigintzaz aritu da TXINTXARRI-rekin

Iñigo Gonzalez Sarobe

Kontsumismoa, kontziliazioa, teknologia berriak... Gai horiei buruzko tentsioak eta gatazkak eguneroko ogia dira familia askorentzat. Horiek eta beste asko jorratu ditu Pablo Barriok (Agurain, Araba, 1958) *Dzist-Dzast: Flamenka, endredo ugari han-hemenka* lanean. Antzerki formatuan idatzi du, haurrentzat.

Iruñeko Udalak eta Nafarroako Antzerki Eskolak elkarlanean antolatzen duten lehiaketara aurkeztu, eta euskarazko kategoriako saria irabazi du, hirugarren aldiz. Beste biak 2006an eta 2007an erdietsi zituen, lan hauekin: *Abere hatsak eta beste animalia batzuk* eta *Herio azeri hori*, hurrenez hurren. "Antzerkia idaztea, euskaraz, haurrentzat...

Ezaugarri horiek dituen sariketa bakarra da", nabarmendu du Barriok. 2.500 euro poltsikoratu ditu, eta Nafarroako Antzerki Eskolak berak taularatuko du obra, 2022ko apirilean. "Antzerkia egitea sormen kolektiboko ariketa da: idazleak sortzen du, zuzendariak sortzen du, aktoreek sortzen dute, teknikariek sortzen dute... Nire lana moldatzen badute, ados, baina

betiere egin dudanaren esentzia errespetatzen badute".

Barrioren laneko bost protagonistetatik hiru familia berekoak dira: amona, ama eta haurra. Nagusienak "makalduta" du burua, eta pirata dela uste du, Flamenka, bere garaian Patakonen lagun mina izandakoa; haren alaba ama bakarra da, lan prekarioa du eta antzerkia idaztea gustatzen zaio; eta gazteenak, haurrak, kirolen batean munduko txapeldun izatea du amets. Laugarren protagonista ume horren laguna da, bestelako familiarte batekoa, eta bosgarrena, Namtañam pirata, pertsonaia birtuala, Flamenkaren kontrapuntua. Idazlearen ibilbidea jarraitzen duenari gogora etorriko zaio aurtengo udaberrian argitaratu duen *El Sitio del Fin del Mundo* liburua, keinuren bat edo beste egin baitio.

Haurrentzako idazten

Piraten arteko ezpata borrokak, familia baten eguneroko gatazkak, kontsumismoa eta prekaritatea bezalako gai sozialak... Elementu horiek uztartu ditu antzezlanean, haurrentzat. "5 eta 10 urte arteko umeak izango dira emanaldia ikusiko dutenak; hasieratik zureganatu behar duzu haien arreta". Horretarako, baliabide ugari erabili ditu idazleak: pertsonaien arteko elkarriketa labur asko; piraten arteko ezpata borrokak, "emozioa emateko"; eta istorioen egitura klasikoa (hasiera, korapiloa eta amaiera) errespetatzea, beste batzuen artean. Fantasia eta errealitate gordina tartekatu ditu. Azken hori, uste duelako landu behar direla horrelako gaiak umeekin. "Pandemia tarteko, gure herrian familia bat baino gehiago poztu

da sanpedroak ohi bezala ez ospatzeaz, egoera ekonomiko oso txarra dutelako, edo esan behar diete seme-alabei ez dutela sosik zinera joateko... Antzezlanea ikustean, nahi dut errealitate hori bizi duen umea identifikatuta sentitzea, eta alboan duenak, lagunarekin enpatia izatea".

Bidaiatzearekin alderatu du idazteko prozesua herritarrak: "Adibidez, Erromara banoa, ez dut aurrez zehazten zein egun eta ordutan joango naizen Coliseora; joango naiz Erromara, eta aurrera egingo dut, ezkerrera, eskuinera... Bada, idaztearekin berdin: hasi baino lehen, garbi dut ideia, baina ez eskema osoa; bidea egin ahala lotzen ditut hariak".

Antzerkigintzaren egoera

Barriok zail ikusten du *Dzist-Dzast* lana argitaletxeren batek publikatzea. "Euskaraz idazten den antzerkia argitaratzea oso zaila da, baina saiatuko naiz". Idazleak azaldu duenez, Iruñeko Udalak, esaterako, bilduma batean kaleratzen ditu obra irabazleak, hiruzpalau urtetakoak batera, eta ez gero zabaltzeko, artxiboan gordetzeko baizik.

"Aberastu nahiko banu, beste zerbait egingo nuke", dio Barriok. Uste du euskal antzerkigintzaren sormen gaitasuna "izugarria" dela. "Gazte ugari ari dira lanean, proposamen oso ausartak egiten dituzte, baina hortik bizi ahal izatea da arazoa, egoera ekonomikoa oso txarra delako".

"IDAZTERAKOAN, GARBI IZATEN DUT IDEIA, BAINA BIDEA EGIN AHALA LOTZEN DITUT HARIAK"

I. BAKAILAOAREN IBILBIDEA L A S A R T E - O R I A

Urriaren 3ra arte herriko taberna hauetan:



606 898 480
www.bacalao.eus





Ttakun Kultur Elkarteko ordezkarri eta begiraleak eta udaleko Euskara batzordeburua, aisia egitasmoak aurkezten. TXINTXARRI

Aisialdia, euskaraz, adin txikiko herritarrentzat

Adin ezberdinetako haur eta gazte lasarteorietarrek Ttakun Kultur Elkartek Lasarte-Oriako Udalarekin elkarlanean antolatzen dituen aisia programetan parte hartzeko aukera izango dute. Izen emate epea zabalik dago oraindik

Txintxarri

Ikasturte berria hastearrekin batera dator Ttakun Kultur Elkartek eta Lasarte-Oriako Udalak, elkarlanean herriko haur eta gazteentzako prestatu duten aisialdirako eskaintza zabalak; hastear dira Amaraun Kluba, Gazte Kluba, Kuadrillategi eta Faktoria egitasmoak. Horien aurkezpena egin dute kultur elkarteko ordezkariek eta Jon Antxordoki udaleko Euskara batzordeburuak. Programa horietako erabiltzaile izango

direnentzako prestatu dutenaren berri eman dute.

Haur eta gazteen garapena aisialdiaren bitartez lantzea dute helburu aipatu egitasmoek, eta horretarako, erabiltzaileei egingo zaien eskaintzak "dibertigarria" izan behar duela argi dute. Eta xede hori bete asmoz, jarduera "erakargarriak" prestatu dituztela aurreratu dute, partehartzaileek ongi pasa dezaten.

Saioetan gozatzeaz gain, hizkuntza ohituretan eragitea ere izango da beste jomugetako bat: "Haur eta gazteen harreman sarea

euskalduntzea eta lagunarteko komunikaziorako tresna euskara izatea dira helburuak", azaldu dute Ttakun Kultur Elkarteko ordezkarri Pili Bermejo eta Ander Rekondok. Eta xede hori lortzeko, euskaraz aritzeko esparruak sortzea da arduradunen erronketako bat, euskararen aldeko "dinamika soziala" eta "identitate euskalduna" indartzearekin batera.

Amaraun eta Gazte Klubak

2 eta 8 urte arteko haurrei eta horien familiei zuzendutako

programa da. Hilean behin HH3-4ko haurrentzat ipuin-kontaketa saio bereziak eskainiko dituzte. HH5 eta LH2koentzat, aldiz, tailer "hezigarri eta dinamikoak" prestatu dituzte. Magia, sukaldaritza eta laborategi tailerrak egingo dituzte, besteak beste, eta, horietako bakoitzak lauzpabost asteko iraupena izango dute. Urria amaieran hasiko da lehenengoa, eta gainerakoak ikasturteak aurrera egin ahala iragarriko dituzte.

Eskaintza horretaz gainera, familientzako "ekintza puntualak" ere antolatuko dituzte: mahai jolasen topaketa, ikastaroak, eta abar, eta, baita ekintza bereziren bat edo beste, hala nola, ikuskizunak eta irteerak, esaterako. Eider Lucero izango da begiralea, eta infirmazioa eskatzeko, aisia@ttakun.eus helbide elektronikora idatzi behar da, edo 695 78 53 92 telefonora deitu.

9 eta 12 urte bitarteko gaztetxoek, berriz, Gazteklubean aritzeko aukera dute. Gaur, urriaren lehen hasiko da, eta aurkezpen saioa izango dela iragarri dute. Izen-emate epea, ordea, urriaren 12ra arte luzatu dute, hortaz, oraindik programa horretan parte hartu nahi duen inor bada, garaiz da inskripzioa egiteko. Behin izen emate guztiak biltzen dituztenean, taldeak egin jakinaraziko dute zein espazio erabiliko den, begiralea eta protokoloa zein diren eta zein taldetan dagoen erabiltzaile bakoitza. Egitasmoan parte hartu nahi duenak, honako helbidean eman dezake izena: labur.eus/gzk2122.

Ohiko saioak ostiralero izango dira, 17:30etik 19:30era eta lau begirale ariko dira lanean: Ane Golmaio, Sara Etxeberria, Maddi Trantxe eta Haizea Alvarez.

Tarteka, jarduera bereziak ere egingo dituzte, asteburuetan eta oporraldietan, horien artean, Aquarium-era bisita, Txuri Urdin izotz jauregira edo Paintball-ean jolastera.

Eta horien artean, Natur Ekintzak izango da lehena, urriaren 16tik 23ra. Bizikletan ibili, mendi ibilaldia eta hipika jarduerak egingo dituzte. Prezioa ere jakinarazi dute: 19 euro Ttakuneko bazkideentzat eta 22 euro, aldiz, bazkide ez direnentzat. Larunbatetan izango da, 10:30etik 12:00etara, eta izena emateko, aisia@ttakun.eus helbide elektronikora idatzi behar da, edo 695 78 53 92 telefonora deitu.

Kuadrillategi eta Faktoria

DBH1etik 4rako gazteentzako aisialdiaz Kuadrillategi egitasmoa arduratuko da. Saio arruntak ostiralero egingo dituzte 19:00etatik 21:00etara, eta dinamika ezberdinetan, jolasetan zein afari, tailer eta proiektuetan parte hartzeko aukera izango dute.

Saio bereziak ere antolatuko dituzte, besteak beste, eskiatzera eta Zuhatzara irteerak, Olentzero eta Mari Domingiren ongi etorria eta abordaia.

Faktoria ere hilabete honetan jarriko dute martxan, Batxilergoko gazteentzat. Ikasturtero gisa, proiektu bat aukeratu eta horren lanketan arituko dira. Bi ostiralean behin elkartuko dira.

Kuadrillategin zein Faktorian izena emateak sarean egin daitezke, honako helbidean: <https://forms.gle/r259yTT6FysyuqPG8>. Horrez gain, ktglasarteoria@ttakun.eus helbidera idatzita ere egin daiteke.

Egitasmoetako arduradunek dei egin diete Lasarte-Oriako haur zein gazteei, programa horietan parte hartzerantz animatu daitezten.

NATUR EKINTZAK

Irteerak txirrindan eta patinetan, eskalada, mendibuelta eta hipika.

LARUNBATETAN, URRIAK 16, 23 ETA 30. AZAROAK 6 ETA 13. LH3, LH4, LH5 ETA LH6KOENTZAT. 10:30-12:00. ORIARTEKO PATIOAN ELKARTUKO GARA ANIMA ZAITEZ!

19 EURO TTAKUNeko BAZKIDEAK / 22 EURO EZ BAZKIDEAK

Egunerako behar den materiala aurretik jakinaraziko da

Izena emateko: 695 78 53 92 (whatsapp) edo posta elektronikoz, aisia@ttakun.eus

Egunerako behar den materiala aurretik jakinaraziko da. Plaza mugatuak!



txintxarri

28 urte!

1993ko urriaren 1a 1. Zenbakia

Zer dakizu guri buruz?

Data berezia da urriaren 1a TXINTXARRI aldizkariarentzat. 1993ko egun horretan kaleratu genuen aurreneko zenbakia, eta beste 1.558 etorri dira atzetik. Eta geratzen direnak! 28. urtemuga elkarrekin ospatze aldera, erronka batekin gatozkizu: agerkariari buruzko hamar galdera ezetz asmatu. Anima zaitetz!

Txintxarri

Lerro hauek idatzi bitartean pistaren batek edo bestek ihes egingo digu. Beraz, adi irakurri: 1993ko urriaren leian argitaratu genuen TXINTXARRI aldizkariaren aurreneko zenbakia, eta 28 urte geroago, egun berean, 1558. agerkaria kaleratu dugu. 28 urte. 10.227 egun. 245.448 ordu. 14.717.280 minutu. Eta gure alboan egon diren eta jarraitzen duten langile, kolaboratzaile, erakunde eta, batez ere, irakurleei eskerrak emateko, are kopuru handiagoa beharko genuke, ez dakigu zenbat zifrakoa.

Biribilena ez izanda ere, uste dugu 28. urteurrena ospatzeko modukoa dela, eta zuekin batera egin nahi dugu, erronka baten

bidez. Ohartuko zineten honezkero, baina galdera lehiaketak gustuko ditugu, aurten antolatuko dugun hirugarrena delako orain aurkeztuko dizueguna.

TXINTXARRI-ri buruzko hamar galdera-historikoak dira batzuk, eta gaur egungoak besteak-erantzun beharko dituzue zuzen, Avenida Tabernako bi menu goxo irabazi nahi badituzue. Dendak asmatzen dituzuenon artean zozkatuko dugu sari nagusia. Otorduak ez bazaizkizu egokitzen, lasai, kontsolamendukoa ere badugu eta; patata-tortilla bat, hori ere Avenidako lagunek prestatutakoa. Lehiaketa urriaren letik 3ra arte izango da.

Hurrengo lerroetan, historia apur bat (gogoratu adi

irakurtzeaz!): Ttakun Kultur Elkartearen altzoan jaio zen TXINTXARRI, eta, esan bezala, 1993ko urriaren 1ean hasi zen herriari buruz gertutasunez eta euskaraz informatzen. 28 urte geroago, asteen behin argitaratzen dugu aldizkaria, ostiraletan, eta tirada 8.500 alekoa da.

Ttakunek lehen zuzendari Sebastian Kerejetak esan ohi duenez, jakin-min handiko pertsona da txintxarria, gertakari bila aritzen dena hara eta hona. Horregatik jarri zioten izen hori aldizkariari, eta hala izaten jarraitzen du; ez du esentzia galdu, eta ez du galduko.



GALDERA LEHIAKETA SARIAK

AVENIDA TABERNAREN ESKUTIK

- Hamar galderak asmatzen dituztenen artean: bi menu.
- Parte hartzaile guztien artean: patata-tortilla bat.





Tokio 2020ko Olinpiar eta Paralinpiar Jokoetan Lasarte-Oriak ordezkariak izan ditugu lehian. Maialen Chourraut Iurramendik bere laugarren parte hartzean zilarrezko domina jantzi du piraguismoko K1 mailan; Nahia Zudaire Borrezo igerilari gaztea, berriz, estreinakoz aritu da eta bi diploma lortu ditu. Bi kirolariek izan gara solasean; besteak beste, Tokioko Jokoak eta etorkizuna izan ditugu hizpide



"Uste dut nire dominarik kuttunena izango dela Tokiokoa"

MAIALEN CHOURRAUT IURRAMENDI PIRAGUISTA

Tokio 2020ko Olinpiar Jokoetan domina berria gehitu du bere garaipen zerrendara, zilarrezko domina. Lehiatzen jarraituko du eta Paris 2024 du orain jomuga

Nerea Eizagirre

Maialen Chourraut Iurramendi (Lasarte-Oria, 1983) piraguista Olinpiar Jokoetako protagonistetako bat izan da. 2016an, Rion urrezko domina lortu ostean, bost urteko ziklo olimpiiko gogorra igaro du kirolariak. Hala ere, laugarren parte hartzean ere ez du hutsik egin eta podiumean egon da herritarra. Bere garaipen zerrenda luzean Olinpiar Jokoetan falta zitzaion domina gehitu du palistak, zilarrezko domina.

Zein zen Tokio 2020ko helburua?

Helburua Maialenen hoberena ematea zen; Maialen azkar bat. Nabigazio onarekin, sendo eta trinko joatea eta banekien hori betetzen banuen emaitza ona izango dela. Baina nik ezin dut helburua emaitza batean jarri. Emaitza ez dagoelako nire esku, jende gehiago dago lehian. Nik ondo egin badut, hortaz harro egon behar dut. Eta hori zen. Agian nik gaizki egiten dut eta besteak okerrago. Eta kasu

horretan emaitza badago, baina nik nire helburua ez dut bete. Biak ongi ateratzen badira, askoz hobeto. Emaitza eta helburua lagun badira hobeto.

Pausoz pauso joan zinen lehiaketan... Pekineko jokoetan sailkatze proban 50eko bat egin eta agur, joko gabe geratu nintzen. Beraz, argi izan genuen hurrengoetan sailkatze probak garrantzitsuak izango zirela eta pausoz pauso joan behar ginela.

Tokioko sailkatze probetan oso gustura amaitu nuen; bilatzen nuen nabigazioarekin. Eta oso pozik nengoan. Pala uretan jartzen nuen bakoitzean piragua nik nahi nuen lekura joaten zen, urarekin bat nindoan... Eta lehen fase hori gaingitu genuen arazorik gabe eta nabigazio onarekin. Perfektu!

Finalerdian zirkuitua aldatu zuten, ordea.

Bai, benetan zaila zen. Zirkuitu horretan guztia oso kontrolatua izan behar zen.

Nabigazio aldetik sailkatze proben antzera egin nuen. Ate

bat ukitu nuen; zigorrarekin zazpigarren eta gabe hirugarren. Oso ondo eta pozik nengoan.

Eta finala, zirraragarria izan zen.

Zirkuitua berriro aldatu zuten eta oso zaila zen. Ez zuen uzten oso aske joaten. Oso erraz ukitzen ziren ateak eta mugimendu horrekin atea saltatu ahal zenuen.

Bagenekien Londresen eta Rio de Janeiron bezala dena eman behar nuela. Atzera ezin zara joan; aurre egin behar diozu egoerari, eta behin eginda, oso pozik nengoan. Nire helburua bete nuen.

Finalerdian zazpigarren geratu nintzen, nire atzetik sei pertsona geratzen ziren oraindik. Itzaroteko momentu hori ez da erraza, tentsio handikoa da. Baina nik Xabiri [Etxaniz] esaten nion pozik nengoela egindako lanarekin, berdin zitzaidala bosgarren, seigarren, "nik uste laugarren geratuko naizela". Inoiz ez dakizu zer gertatuko den.

Eta egoerak hobera egin nuen, gainerako parte hartzaileek ez baitzuten nire denbora hobetzen.

Ricarda Funkek bakarrik lortu zuen.

Eta Olinpiar Jokoetan falta zitzaizun domina lortu zenuen, zilarrezkoa. Momentuan ezin sinetsi nengoan. Rio de Janeiron ere gertatu zitzaidan. Hainbeste denbora borrokatu urre bat lortzeko eta amets hori betetzea; ezin sinetsi momentu hori bizitzen ari zarela. Egindakoa egin duzula; ongi atera dela.

Apustu handia izan da. Bost urte lanean dira proba batean enfokatuta, egun batean, eta egun horretan ondo ateratzea oraindik ere... "Uau! Baina nola liteke!". Hori asimilatzea kosta egiten da.

Gainera, ilusio bereziarekin hartu nuen. Urrea baneukan eta horrek presio handia ekartzen du. Amets olimpiiko hori bizita nuen.

Berriro ere lehen hiruen artean egotea eta falta zitzaidan domina lortzea... Uste dut nire dominarik kuttunena izango dela. Berezia izan da etxera ekarri ahal izatea eta hunkigarria.

Etorkizunean lehian jarraituko duzula adierazi duzu; Paris 2024ko hitzordua duzu buruan?

Tokio 2020 eta gero oso nekatuta amaitu nuen bai fisikoki, bai mentalki. Lehiaketa aurreko hilabeteak oso gogorrak izan ziren, asko kosta zitzaidan iristea. Eta Tokioren

ostean, hausnarketarako hilabete batzuk hartzea pentsatzen nuen.

Denboratxo bat izan dut horretarako eta konturatu naiz su edo txinparta hori oraindik piztua dagoela.

Gainera, Parisen modalitate berria sartzen da, *eslalom extreme*, eta ezezaguna izanik, ilusioa egiten dit hori probatzeak, hori entrenatzeak... Orain utziko banu aukera bat galtzen dudala sentituko nuke. Eta hori probatu gabe uzteak pena handia ematen dit.

Ez da bide erraza izango, belaunaldi berria indartsu dator atzetik.

Bestalde, 2023 urterako Usurbilen Maialen Chourraut kanala martxan egongo dela adierazi du Eusko Jaurlaritzak. Ilusioa egiten duzu? Ilusioa baino gehiago egiten du kanala egia bihurtzeak.

Ni piraguismoan hasi baino lehenagoko eskaera bat da. Ea guztiek euren aldetik jarri eta horrela den. Askotan aipatu bezala, ni piraguismoan jardunean nagoela bertan entrenatzea da nire nahietako bat.

Kanal batekin, gainera, kirol kultura zabaltzeko aukera dago. Jende askori ateak irekiko dizkio piraguismoa zer den ezagutzeko eta beste zenbait gauza egiteko ere balioko du. Aberasgarria izan daiteke guztientzat.



Irakurri elkarrizketa osoa www.txintxarri.eus atarian

Nerea Eizagirre

Buruntzaldea IKTko Nahia Zudaire Borrezo (Zubieta, Donostia, 2004) igerilariak otsailean 400 metro libre proban B marka egin eta lehenengoz Paralinpiar Jokoetan lehiatu da. Hiru probetan parte hartu du eta bi diploma olinpiko eskuratu ditu.

Denboraldi ona egin duzu. Markak hobetu dituzu eta Tokion lehiatu zara. Sasoi hasierako helburua bete duzu?

Denboraldi zail batetik nentorren. Londreseko Munduko txapelketa eta gero, ez dakit nerabezaroagatik edo lehiaketaren osteko depresioagatik edo, beherakada izan nuen. Ez nekien nire bizitza kudeatzen. COVID-19ak salbatu ninduela esan daiteke. Geldiune bat izan dut gauzak argitzeko.

Ondorioz, aurten aldaketa handia egin dut. Entrenatzaile eta talde berria, dena berria. Helburu nagusia, nahiz eta prestatzailearekin horri buruz zehazki ez hitz egin, nik lehiaketan ez sufritzea zen; kontzentratzea, eta egoera lasai kudeatu ahal izatea.

Lehia bideratuta izatean, beste guztia bakarrik etorri da. Helburu nagusiak ez ziren markak edo Tokiora joatea. Xedea zen lehiaketara bueltatu eta ez etxera joan nahi izatea.

Zure lehen Paralinpiar Jokoak izan dira. Zer nolako bizipena izan da?

Orain hasi naiz guztia asimilatzen. Hilabete igaro da eta pixka bat hobeto nago. Sentsazioa izan da Paralinpiar Jokoak handiak direla. Dena, hamar bider. Ez da orain bizi izan dudanaren antzekoa. Sentsazioak, egoera, lehiaketa, jendea... Esperientzia itzela izan da.

Zein desberdintasun dago nazioarteko lehiaketa batekin?

Lehenengoa olinpiar hiria da; bertan kirol guztietako kideak ginen. Orain arte igeriketako jendearekin bakarrik egotera nengoen ohitua. Beti igerilekuan ikusten nituenekin topatzen nintzen jangelan. Tokion atletismoko batekin edo beste kirol batekoarekin egiten zenuen topo.

Kudeaketa eta tokia... Beste mundu bat bezalakoa da. Gainontzeko txapelketetan hotel eta igerilekua bana da. Orain guztia bideratuta zegoen txapelketa horretara, uneoro zeuden atmosfera horretan sartuta: olinpiar hiria, kirol bakoitzaren eremua...

"Ikastera eta esperientzia hartzera joan naiz Tokiora"

NAHIA ZUDAIRE BORREZO IGERILARIA

17 urteko igerilariak etorkizuna duela erakutsi du Tokioko Paralinpiar Jokoetan. Parte hartutako hiru probetatik bitan laugarren postuan amaitu du lehia

Elkarrizketa batzuetan aipatu duzu zuretzako saria zela Tokion egotea, eta lehia ez zela zure helburua.

Nik fisioterapeuta bati esan nion eta errieta egin zidan. Eta zera esan zidan: "Zu ez zara zorte oneko hemen egoteagatik, zuk lan egin duzu hona etortzeko". Baina kontuan izan behar da nire jarduna ez nuela bideratu Tokiora, eta bertan egotea prozesuko azken pausoa zen. Denboraldia antolatuta nuenen, argi nuen ez zitzaidala burua joango horregatik.

Arantza nuen sartuta Londreseko Munduko Txapelketatik. Ez nuen

bideaz gozatu. Oraingoan, egin dudan guztiarekin zoriontsu izan naiz eta bete nau. Beraz, Tokion guztia egina nuen.

Esperientzia bizitzera, jendea ezagutzera, Paralinpiar Joko batzuk zer diren jakitera eta ikastera; batez ere, horretara joan naiz.

Emaitzak ezneuzkan buruan inolako

momentuan. Zentzu horretan lasai joan naiz. Ez zen "nire jokoak dira eta hau lortu behar dut". Hamazazpi urte dauzkat. Nire jokoak Paris 2024 edo Los Angeles 2028 dira.

Tokiora, beraz, ikastera eta hurrengo hitzorduetarako esperientzia hartzera joan nintzen.

Lehiaketari dagokionez, ez zenuen lehia ongi hasi. 200 metro lau estilo probatik kanpo geratu zinen. Horrek eragin zizun?

Ez, uste onena baino hobeto erantzun nuen. Tokio izan da k u d e a t z e k o esperientzia zaila.

Gauza asko z i r e n .
B a i n a

guztiarekin ere, proban gertatutakoa ongi eraman nuen. Hortaz ere ikasten da.

Nire hitza da epaileenaren aurka. Ez diot kontra egingo, ikasketa batzuk ditu. Gainera, Paralinpiar Jokoak dira, ez da etxeko txapelketa bat. Maila handia dago eta normala da hain zorrotzak izatea.

Hortaz gain, bi laugarren postu eta diploma olinpikoak lortu zenituen. 100 m. tximeletan momentu batean brontzezko domina eskura izan zenuen...

Hor egoteak hurrengo jokoetarako beste ikuspegi bat ematen dizu.

Egia esan Tokiora iritsi nintzen rankingak begiratu gabe. 100 m. tximeletara iritsi nintzen eta jendeak lehen postuetan egon ahal nintzela esaten zuenean nik ez nuen ulertzen.

Bi laugarren postua eskuratu ditut eta 17 urte ditut. Ez dizkiot buelta asko eman gaiari. Nire teoria da gauza batzuk gertatzen direla gertatu behar dutelako. Eta horrek beste ikuspegi bat eman dit.

Paris 2024, hiru urte dituzu prestatzeko. Zein izango da helburua?

Bai, ziklo motza da hurrengoa. Parisera hogeitertekin iritsiko naiz. Adin hoberena 23-24 urte dira. Beraz, Parisen beste helburu batzuk izango ditut. Gainera, Espainiako selekzioan belaunaldi aldaketa ari da gertatzen eta lehiakortasuna handitzen ari da. Entrenamendu aldaketak izan dituen fruituak ikusita, bide horretatik jarraituz helburuak betetzen jarraituko dudala uste dut.

Urtez urte ikusiko da. Orain denboraldia hasi behar dugu. Aurten, gainera, motza da: ekainean bukatuko dugu, munduko txapelketarekin. Zer gertatzen den ikusteko balioko du.

"SENTSAZIOAK, EGOERA, LEHIAKETA, JENDEA... TOKIO 2020 ESPERIENTZIA ITZELA IZAN DA"

"17 URTE DAUZKAT. NIRE JOKOAK PARIS 2024 EDO LOS ANGELES 2028 DIRA"

Harrera instituzionala

Urriaren 1ean, ostiralarekin, Tokioko Paralinpiar Jokoetan egindako lanaren aitortza jasoko du Buruntzaldea IKT klubeko igerilari Nahia Zudairek, Lasarte-Oriako udaletxean.

Egitaraua

- **17:50ean**, agurra, Udaletxe zaharreko arkuak.
- **18:00etan**, ekitaldia, Udalbatzar aretoa.
- **18:15ean**, Nahia Zudaire herritarrei zuzenduko zaie, Okendo plazako balkoia.



Irakurri elkarrizketa osoa www.txintxarri.eus atarian

Denboraldiko bigarren garaipena erdietsi dute

Eskuz Binakako Txapelketako 3. Mailan ari dira Intza KEko seniorrak. Behar Zana izan dute arerio Michelingo pilotalekuan, eta ez diote inolako aukerarik eman: 22-1 irabazi dute. Jubenilak eta kadeteak, kontrara, esku hutsik geratu dira

Txintxarri

Intza Kirol Elkarteko pilotariek bi partida jokatu dituzte eskuz binakakoan, eta biak irabazi dituzte. Denboraldiaren hasiera ezin hobea izan da herritarrentzat. Bigarren jardunaldia etxean jokatu zuten iraileko azken larunbatean, Villabonako Behar Zanakoen aurka, eta nagusi izan ziren, hasi eta buka: 22-1 irabazi zuen Haritz Urkiak eta Mikel Elolak osatutako bikote zailduak. Joxe Felix Solano prestatzaileak aldizkari honi kontatu dionez, Urkiak min izugarria egin zuen sakearekin, eta Elolak patxadaz jokatu zuen atzeko koadroetan, sufritu gabe. Neurketa oso txukuna jokatzeko gain, frontoira joan ziren zaleen hatsa ere lagun izan zuten lasarteoriarrek, aspaldiko partez. Bitik bi norgehiagoka eta multzoko lidertza poltsikoan, Intzako bikoteak Zumaiaren aurka jokatu du hirugarren neurketa, Aitzuri pilotalekuan. Urriaren 2an neurtuko dituzte indarrak, larunbatez, 12:00etan hasita.

Seniorrak ez bezala, jubenilak esku hutsik geratu dira jardunaldi honetan. Michelinen aritu ziren Haritza Diaz de Guereñu eta Pedro Elosegui, Hernaniren aurka, eta gogotik saiatu arren, ezin izan zuten garaipena ospatu: 16-22 kanpokoen alde. "14. tantora



Haritz Urkiak (pilota jotzen) tanto ugari egin zituen sakez. TXINTXARRI

arte oso parekatua izan zen partida, baina Hernaniko atzelaria nagusitu egin zen eta Intzakoek ezin izan zioten erantzun", zehaztu du Solanok. Diaz de Guereñu eta Elosegui gain, beste herritar batek ere jokatu zuen: Peru Urdanpilleta atzelariak. "Hernanin ari da jokatzeko, Intzak utzita".

Jubenilak ere eskuz binaka ari dira, bigarren mailan. Maila ona erakusten ari diren arren, oraindik ez dute norgehiagokarik irabazi. Gogotik ari dira lanean arantzaxoa ateratzeko, eta Tolosan izango dute horretarako

aukera, Beotibar pilotaleku ezagunean. Hilaren 2an ariko dira, 10:00etatik aurrera.

Kadeteek ere, galdu

Beñat Olazabalek eta Julen Lizasok apenas izan zuten abagunerik Soraluzeako bikotearen aurka, eta 5-22 galdu zuten Michelinen. Haiek ere bitik bi neurketa galdu dituzte eskuz binakakoan. Hirugarren partida Gaztelekuren aurka jokatu dute, Andoaingo Arraten. Hitzordua: hilak 1, ostirala, 18:30ean.

Kiroldegiko bulegora joateko orduak sarean har daitezke

Herriko instalazioetako pistak erreserbatzeko tarifak hilaren 4an berraktibatuko ditu Lasarte-Oriako Udal Kirol Zerbitzuak

Txintxarri

Lasarte-Oriako Udal Kirol Zerbitzuak jakinarazi du urriaren 1etik aurrera posible dela tramiteak presentzialki egiteko orduak sarean erreserbatzea, webgune honetan: www.tramiteak.buruntzaldea.eus. Maialen Chourraut kiroldegian dago bulegoa. Erabiltzaileei ez zaie arrotza egingo sistema, herriko instalazioak erabiltzeko aplikazio bera izango baita. Internetera konektatu daitekeen gailuren bat beharko dute herritarrek, hala nola, ordenagailua edo sakelako telefonoa.

Zerbitzu digital horren bidez, erabiltzaileen eta administrazioaren arteko izapideak egitea erraztu nahi du udalak. "Gaur egungo egoeratik derrigorrezkoak diren aurretiko hitzorduen tramitazioak arintzea da xedea, teknologia berrien bidez". Herritarren batek zalantzarik izango balu zerbitzua erabiltzean, kirol zerbitzuak gidak jarri ditu Maialen Chourraut kiroldegian zein Michelin kirolgunean.

Bestalde, gune bateko zein besteko pistak erreserbatzeko

tarifak berraktibatuko ditu kirol zerbitzuak hilaren 4an, astelehenez. Kiroldegiko squash kantxa erabili ahal izateko 5,50 euro ordaindu beharko dituzte erabiltzaileek orduko. Metro gutxi batzuetara dagoen padel gunea erreserbatzea garestiagoa da: orduko 15,05 euro. Bidenabar, Kirolguneko pilotalekua edo tenis pista 60 minutuz hartu nahi dituenak kopuru hori bera pagatu beharko du.

Bulegora joateko ordua hartzeko webgune bera erabili beharko dute herritarrek aipatutako instalazioen bat erreserbatzeko: www.tramiteak.buruntzaldea.eus. Ordainketa ere sarean egin daiteke, atari horretan bertan. Sistema "seguru" dela bermatu du udal kirol zerbitzuak.

Bazkideak direnek bi aukera izango dituzte guneak hartzeko. Horietako bat da pista erreserbatzea eta tarifa ordaintzea, erabili baino zazpi egun lehenago, gehienez. Bestea, betiere erabili nahi den espazioa libre badago, jokatzeko hasi baino ordu laurden lehenago (ez beranduago) gerturatzea kiroldegiko edo kirolguneko harrerara, eta eskaera egitea.

Sailkatzea du xede Arteaga II.ak

Promozioko Lau eta Erdiko Txapelketa begiz jota du Axier Arteaga lasarteoriarrek. Horretarako, Baikoko aurrelariak sailkapen partida irabazi beharko du Jon Alberdi azpeitiarraren aurka. Mallabian (Bizkaia) ariko dira nor baino nor gehiago urriaren 1ean, ostiralez, 22:00etatik aurrera. ETB1 telebista kateak zuzenean eskainiko du neurketa.



Promozioko lau eta erdikoa jokatu nahi du herritarrek. BAIKO PILOTA



OSTADAR IPAR MARTXA

Aizkorri mendira joan dira

Ostadar Ipar Martxako kideek ikasturteko lehen irteera egin dute: Aizkorri mendira joan dira hogeit bat pertsona, egunpasa. 2022ko ekainera arte, hileroko aurrera eramango dituzte gisa horretako jarduerak.

Bestalde, asteazkenetako eta ostegunetako taldeak astero ari dira entrenatzen. 19:00etan eta 10:00etan hasten dira, hurrenez hurren.

Mendian gora eta behera, festa giroan

Lasarte-Oria Trail Mendi Elkarteak antolatutako III. Mendi Festa izan da iraileko azken igandeko hitzordu nagusia. 500 dortsaleatik 480 banatu ditu antolakuntzak. Parte hartzaile bakoitzak bere gaitasunaren arabera osatu du aukeratutako ibilbidea

Maitane Aidanondo

Okendo plazan 09:00etan egon behar zuen martxa motzean izena eman zuen lehen taldeak. Iazko pilaketa txikiak saihesteko, irteera mailakatu egin dute. Ordu bakoitzerako prestatutako zerrendan nork bere burua topatu, eta zegokion mahaian jaso du bere fitxa. Handik irteerako arkura bidean temperatura hartu diete banan-banan, apenas ilararik osatu gabe. Gutzika, abiapuntua zehazten zuen hori zeharkatu, eta Buruntza bidean jarri dira.

Martxa motzekoak abiatzerako, martxa luzea egitera ausartu direnek -30 kilometro eta 1.600 metroko desnibel positibo metatua- pare bat ordu zeramatzen mendian gora eta behera. Ttipi-ttapako zortzi kilometroak egitea aukeratu dutenak, berriz, 09:30ean eta 09:45ean irten dira.

500 partaideko muga ezarri zuten antolatzaileek, eta handik

gertu ibili dira: 180 batek martxa luzean izena eman du, 220k, motzean, eta gainerako 80ek Ttipi-ttapan. Guztira, 480. Horiek dira mendira igotzeko asmoa adierazi dutenak, denek ez baitute aurrera eraman, eta mahai gainetan zenbait fitxa gelditu dira, jaso gabe. Bitxikeria gisa horietako batzuk iazko ibilbidea buruan, kontrako norabidean irten diren partaideenak ziren. Okendo plazara joan beharrean, Hipodromotik ekin diote bideari.

Giro eguzkitsua

Eguraldia lagun izan dute mendizaleek, akaso, bero gehiegi; mendiko aldapetan gora

MUSIKAK LAGUNDUTA IRITSI DIRA PARTE HARTZAILEAK OKENDORA, ETA SARIA JASO DUTE BERTAN

normalean hotzik izaten ez dela kontuan hartuta. Azkorteko baselizara heldu direnean, musukoa janzteko aholkatu, eta gel hidroalkoholikoa eman die antolakuntzako kide batek. Bertan, freskatzeko edaria eta indarberritzeko zer jan izan dute. Askok hartu dute bide hori, beste batzuek, aldiz, lehenik tontorrera igo nahi izan dute. Gurutzerantz zihoazela behera zetozen jada lehen partaideak. Izan ere, bidea egiteko modua eta abiada norberak erabaki du: lasterkan igotzea nahiago izan duenik bazen, baita solasean eta patxadaz osatzea nahiago izan duenik ere.

Familiei begirako zortzi kilometroak egin dituztenentzat ermita zen jaisten hasteko lekua. Amaiera, berriz, denentzat bera izan da: Okendo plaza. Musikak lagunduta iristen joan dira eta ahaleginaren saria jaso dute bertan, produktuz betetako poltsa bana.



Hasi eta buka, parte hartzaileek gozatu ederra hartu dute. TXINTXARRI

LOTME elkarteak: "Oso-oso pozik gaude"

Lasarte-Oria Trail Mendi Elkarteak (LOTME) zuzendaritza "oso-oso pozik" dagoela adierazi du antolatzaile taldeko kide Javi Olazagoitiak, III. Mendi Festa "arakastatsua" izan delako.

"Diru kontuak egiten ari gara orain, eta bukatzen dugunean agian gure irribarrea ez da horren zabala izango, baina partaideen iritzi onekin geratuko gara, eta ostalarien zorian mezuekin; herritik eta herriarentzat antolatutako kirol proba da".

Hirugarren urtez antolatu du LOTMEk jarduerak hori. Gero eta eskarmentu gehiago dute elkarteak, nahiz eta Olazagoitiak onartu duen "zenbait akats txiki" egin dituztela. Edonola ere, nota ona jarri die antolatzaileen eta boluntarioen lanari, ez baita ahuntzaren gauerdiko eztaba ia 500 partaideko kirol ekitaldi bat antolatzea. "Ez nuen espero dorsal ia guztiak banatzea, baina probaren aurreko egunetan jende asko inskribatu zen;

askok itxaroten dute eguraldia nolakoa izango den ikustera, eta, egia esan, alor horretan zorte izugarria izan dugu aurten ere".

Hausnartzeko garaia

"Mendi festa egiten hasi ginen, esperientzia irabazi eta lasterketak nola antolatu ikasteko", gogorarazi du Olazagoitiak. LOTMEkoek ez dute ahaztu hori, baina ikusi dute kirol proba horren formatua oso gustuko duela jendeak; batek baino gehiagok eskatu die datorren urtean ere egiteko. "Zuzendaritzako kide bakoitzak bere iritzi du, baina hurrengo urtean lasterketa antolatzea erabakita ere, gaur egungo festaren formatua mantentzearen alde nago, garbi dagoelako funtzionatzen duela". Dena den, logistika aldetik, onartu du ez dela gauza bera mendi martxa edo lasterketa antolatzea. "Gaur egun, 50 bat boluntario aritzen dira gurekin lanean, eta

bikoitzak beharko genituzke, gutxienez, hori arazo izan daiteke".

Elkarteak hiru urte daramatza mendira joateko ohitura sustatzen herrian, eta denbora horretan "ikaragarri" hazi dela jakinarazi du Olazagoitiak. "150 bazkide gara, eta pertsona ugari daude itxaron-zerrendan kanpaina berria hasten denerako. Horrez gain, 70 mendi lizentzia ditugu". Zaharragoak diren klubengandik ikasitakoa ahaztu gabe, "garai berrietara egokitzen" ari da LOTME, sare sozialak gero eta gehiago lantzen, belaunaldi gazteak erakartzeko asmoz. "Jendearengana iristeko moduak lantzen ari gara, inoiz baino aktiboagoak gara sarean... Ahalegin izugarria egiten ari gara".

"PARTAIDEEN IRITZI ONEKIN GERATUKO GARA, HERRITIK ETA HERRIARENTZAT EGITEN DUGU FESTA"

Orhi mendira urriaren 10ean

Olazagoitiaren hitzetan, mendizaleak LOTMEra erakartzeko beste modu bat da irteerak antolatzea. Urriaren 10ean, igandez, Orhi mendira joango dira. Zaraitzuko haranean dago, Nafarroako ipar-mendebaldean eta 2.000 metro pasatxo igo behar dira tontorrera heltzeko. Iratiko harana edota Hiru Erregeen Mahaia mendia ikus daitezke handik. Antolatzaileek zehaztu dute ibilbidea hamalau kilometrokoa izango dela, eta mila metroko desnibel positibo metatua izango duela.

Parte hartu nahi dutenek WhatsApp bidez jarri behar dute harremanetan LOTMErekin, 623 03 03 73 zenbakira mezua bidalita. Bestela, direccion@lasarteoriatrail.com helbide elektronikora idatz dezakete. Elkarteak bazkide direnek hogeituro euro ordaindu behar dituzte, eta ez direnek, aldiz, 35. Autobus zerbitzua, bazkaria eta egun osoko aseguruja jasoko dituzte trukean.

Arerioa barkatu izana garesti ordaindu dute

Texas Lasartearrak 0-6 galdu du Ekintzaren aurka. Markagailuak dioenaren kontra, Iker Morenoren taldeak neurketa txukuna egin du, eta abaguneak izan ditu aurrea hartzeko. Argiena, penaltia, baina atezainak geratu du. Bi jardunalditan puntu bat urratu dute

Txintxarri

Markagailuan aurrea hartzeko aukera duzunean, hobe baliatzea, garesti ordainduko baituzu bestela. Futbolearen behin eta berriro errepikatzen den esaldia da, topikoa, baina ia beti betetzen dena. Galde diezaiotela bestela Kadeteen 1. Mailan lehiatzen ari den Texas Lasartearrari. Multzoko talde indartsuenetako bat hartu zuen Michelinen, eta 0-6 galdu zuen. Azken emaitzak aurkakoa iradokitzen badu ere, Iker Morenoren mutilek ez zuten partida txarra jokatu.

"Jokalari batzuen lesioak eta giro beroa tarteko, arerion area inguruan ez presionatzea erabaki genuen", azaldu du Morenok. Taktikarekin asmatu zuen, Ekintza estu hartu baitzuten etxekoek. Bi taldeek sortu zituzten aukerak, baina garbienak Texasek izan zituen, penalti eta guzti. "Atezainak geratu egin zuen jaurtiketa, eta



Texas Lasartearrak lehen zati oso ona jokatu zuen. TXINTXARRI

kalte egin zigun horrek psikologikoki, jaitsi egin genuen intentsitatea", oroitu du entrenatzaileak. Egoera hori ederki asko baliatu zuen Ekintzak, eta 0-1ekoa sartu zuen. Edonola ere, markagailuari

eustea lortu zuen etxeko taldeak, eta merezitako atsedena hartzera joan zen. Berdinketa gertu zegoen, gol bakarrera.

Asmo horrekin zelairatu zen talde zuri-urdina –etxean aritu arren, urre koloreko kamiseta

batekin jokatu zuen Ekintzaren aurka–, baina berehala zapuztu zen, bigarren zatia hasi eta hamar minutura sartu baitzuten bigarrena donostiarrek. Beste lau gehiago egin zituzten, epaileak neurketa bukatu zela adierazi arte. Moreno: "Nekeak, penaltia huts egin izanak eta markagailuan atzetik joateak ez zigun mesede egin". Denboraldiko lehen hiru puntuak lortzeko aukera polita izango du Texasek urriaren 2an, larunbatean: Zarautzekin neurtuko ditu indarrak, 11:15etik aurrera.



Areto futbola, hastear. TXINTXARRI

Eguzkiko seniorrak, prest

Iazko denboraldiko eten luzearen ostean, Eguzki Areto Futbola Klubeko senior taldeak lehiatzen hastear dira. Etxean jokatu du Eguzki Arkupe Rehabilitaciones taldeak, urriaren 1ean (ostirala), 20:50etik aurrera. Antiguokorekin neurtuko ditu indarrak.

Eguzki ISU Leioak-ek, berri, Eskoriatzaren kantxa bisitatuko du urriaren 3an (igandea). Norgehiagoka 11:30ean hasiko da, Manuel Muñoz kiroldegian.

Jardunaldiko emaitzak

Ohorezko Erregionala
• Zumaiako 0-3 Ostadar

Gorengo Maila
• Ostadar 0-5 Orioko

1. Erregionala
• Euskalduna 1-4 Ostadar

Jubilen Ohorezko Maila
• Mundarro 4-1 Ostadar

Kadeteen Ohorezko Maila
• Tolosa 1-2 Ostadar

Infantil Txiki
• Danena 4-4 Ostadar

600 txirrindularik parte hartuko dute Lasarte-Oriako BTT proban

Urriaren 3an jokatu dute proba, igandez; 09:30ean aterako dira parte hartzaileak Okendo plazatik

Txintxarri

Bizikletari astindu ederra emateko gosez daude BMW Lurauto BTT Lasarte-Oria trabesian parte hartuko duten 600 txirrindulariak. COVID-19ak eragindako egoera tarteko, antolakuntzak iaz bertan behera utzi behar izan zuen proba, baina aurten ez da halakorik gertatuko. Urriaren 3an jokatu dute lasterketa, igandearrekin. Partaideak Okendo plazatik aterako dira, 09:30ean. Ondoren, bakoitzak aukeratu duen ibilbidearen arabera, gehiago



2019ko probako iritsiera bat. TXINTXARRI

edo gutxiago lokaztuko dira Buruntza eta Andatza mendietan barrena. Okendon helmugaratuko dira, beranduenez, 13:00ean.

Dortsailak eta maillotak jasotzeko bi aukera dituzte parte hartzaileek: Urbil merkatalguneko Eroskin, 16:00etatik 19:00etara urriaren 2an; edo hurrengo egunean, proba hasi baino lehen, 07:30etik 08:30era, Antonio Mercero gunean. Antolatzaileek jakinarazi dute hiru anoa postu jarriko dituztela, txirrindulariek indarrak har ditzaten. Maialen Chourraut kiroldegian duxatu nahi duenak aukera izango du horretarako, baina 14:30ak baino lehen joan beharko du. Horrez gain, bizikletak garbitzeko postua helmugaren alboan egongo dela jakinarazi du antolakuntzak.

Etxeberriak arazo ugari izan ditu munduko txapelketan

Buruntzazpi Txirrindularitza Eskolako kideak erlojupeko eta errepide probak lehiatu ditu Flandrian (Belgika)

Txintxarri


Buruntzazpi txirrindularitza eskolako Haimar Etcheberria irailaren 19tik 26ra Flandrian (Belgika) antolatu den munduko txapelketan lehiatu da. Junior mailako errepide eta erlojupeko probetan parte hartu zuen txirrindulari gazteak eta ez zuen zortea bere alde izan.

Irailaren 21ean, erlojupeko proban lehiaketatik kanpo utzi zuten epaileek. Knokke-Heistenetik atera eta ibilbideko lehen zatian erritmo onean ari zen Etcheberria. Arazo tekniko

batek ordea, jarduna geldiarazi zion. Konpondu ostean, denbora berreskuratzen saiatu zen Bazpiko txirrindularia. Ahalegina antzu gertatu zuen; bi minutu eta erdi galdu zituen Brujaseko helmugan. Gainera, lehiakide baten arrastoa jarraitzea egotzi, eta epaileek deskalifikatu zuten.

Hiru egun geroago, Lovainan jokatu zen errepideko lehia. Eroriko ugari izan ziren eta horietako batean tartean zen Etcheberria. Ondorioz, arazo tekniko ugari izan zituen Irungo gazteak eta lasterketa utzi behar izan zuen.

ZORION AGURRAK



Ekain
Zorionak guapisimo 9 muxu erraldoi. Amaiur, aitatxo eta amaxoren partetik. Asko maite zaitugu!!

JAIOTAKOAK

Ane Garcia Gutierrez. Irailaren 14an.




Jaio da!


Eman jaiotzen berri TXINTXARRI-n.
Deitu 943-37 14 48 telefonora,
bidali hauraren
izen-abizenak eta jaiotze data
txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora
edo
688 68 35 10 WhatsApp zenbakira

EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 1




Larunbata, 2




Igandea, 3




Astelehena, 4




Asteartea, 5



Asteazkena, 6



Osteguna, 7



Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak, baita jaioberriak ere

Internet

- txintxarri.eus/zorionagurrak.
- Zure erabiltzailearekin sartu/ Erabiltzailerik ez baduzu izena eman.
- Bidali zure zorion agurra formularioa bete.
- Zorion agurra formularioan zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.

Posta elektronikoa

- Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.

Osteguneko 16:00ak arte jasotako zorion agurrak.

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 1	ACHA-ORBEA	EGUNeko FARMAZIAK: 09:00-22:00
LARUNBATA, 2	GIL	DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
IGANDEA, 3	GIL	ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
ASTELEHENA, 4	LASA	DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
ASTEARTEA, 5	GIL	LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
AZTEAZKENA, 6	URBISTONDO	GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 15 29
OSTEGUNA, 7	GANDARIAS-URIBE	URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
		GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

A. Etxebarria, 'Cuevas': Andrea kalea 48, Hernani. 943-55 17 93

URTE OSOKO GUARDIAK APP-A eskuragarri app store edo android marketen

Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com orrialdean eskuragarri.

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943-37 16 29
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
KIROLDEGIA: 943-37 61 82
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA:
943-37 61 81
GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
KIUB: 943-36 16 05
UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
MUNTERI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
DYA: 943-46 46 22
GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
UDALTZAINAK: 943-36 24 42
ERTZAINZA: 943-53 88 40
SOS DEIAK: 112

SUDOKUA

	1			9	4		3	
		4						7
		6				5		
			7		2		6	8
9	2							
6	4						2	5
					9	4		
		9	4			2		
		5	8	2				

KOMIKIA



OHARRA

Biyak Bat elkarteko ikastaroak hastear

Dantza, gimnastika, eskulanak, yoga... Ikastaroen eskaintza oparora prestatu du Biyak Bat egoitzako zuzendaritzak aurtengo ikasturterako. Datozen bi asteetan zehar hasiko dira saio guztiak.

Hasiera egunak honakoak izango dira: Zumba, urriak 4, astelehena; Aretoko dantza, urriak 4, astelehena; Lerroko dantza, urriak 5, asteartea; Yoga, astearte eta ostegunetakoak, urriaren 5ean eta asteazken eta ostiraletakoak, urriaren 6an; Yoga aulkian, urriaren 6an, asteazkena; Oroimena lantzeko tailerra, urriak 6, asteazkena edo urriak 7, osteguna; Gimnastika, astelehen eta asteazkenetakoak, urriaren 11n eta astearte eta ostegunetakoak, urriaren 14an eta Eskulanak, Urriaren 15ean, ostirala.

Familia-katHasiera egunak: ekesia urriaren 9an hasiko da

Lasarte-Oriako parroketako (Arantzazuko Ama eta San Pedro) haur famili katekesiari hasiera ematera doazela jakitera eman dute antolatzaileek. Urriaren 9an, larunbatearekin izango da lehen saioa.

Aurten hasteko asmoa duten familiek, haur eta guraso, hilaren 9an, San Pedro parrokira joan beharko dute, goizeko 10:30ean. Bigarren mailekoak, egun berean, 11:30ean izango dute saioa eta hirugarren mailakoek, berriz, 12:30ean.

Hitzorduetan aurtengo antolakuntzaren gainean jardungo dira: egunak, lekuak, maiztasuna, eta abar. Bertan bi parroketako familiak bilduko dira, nahiz eta gero agian katekesia Arantzazuko Ama parrokan ere eman.

Zalantzarik izanez gero, deitu 655 70 92 87 telefonora.

Eskola jarduna indartzeko programa boluntario bila

KUMMEK ikasturte berri bati ekingo dio. Ostarte gazteen parrokia arteko elkarte honek hogeitau urte baino gehiago darama eskola jarduna indartzeko programa garatzen.

Programa honek laguntza ematen die eskola laguntza behar duten familietako neska-mutilei.

Haurren eskariak handitu dira. Hori dela eta, Ostartek Lasarte-Oriako gazteak parte hartzera animatu nahi ditu. Haur horiei denbora tarte bat eskaini nahi dietenei parte hartzeko aukera zabaldu nahi die. Baldintza bakarra 19 urte beteta izatea da.

Animatzen direnak harremanetan jar daitezke 677 68 00 44 (Mila) telefono zenbakian: bai informazio gehiago eskatzeko, baita programan boluntario gisa parte hartzeko ere.

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA
ERRENTAN EMAN
 Etxebizitza bateko logela alokatzen dut, areto amankomunak erabiltzeko eskubidearekin. Harremanetarako zenbakia: 605 70 57 89. Garajea alokatzen dut Torre parkean (Brigidatarren plazan). Harremanetarako zenbakia: 648 20 08 11.

LANA
ESKAINZA
 Herriko ile apaindegi eta estetika zentro batek manikura eta pedikura egiteko langile bat behar du. Harremanetarako zenbakia: 647 82 13 61.
ESKARIA
 Etxeko lanak egiteko edo haurrak zein adinekoak zaintzeko prest nago, goizetan, 10:00etatik 12:00etara.

Harremanetarako zenbakia: 671 27 79 05.
 Haur hezkuntzako ikasketak amaitu berri ditut eta irailetik aurrera haurrak zaintzeko prest nago. Harremanetarako zenbakia: 616 26 11 96.
 Emakume euskalduna lan bila. Orduka lan egingo nuke. Etxeko lanetan, garbiketan... Esperientzia handikoa eta profesionala

garbiketan. Harremanetarako zenbakia: 673 55 62 89.
 Pertsona serioa eta arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna modura, asteburuetan edo ospitaleko zaintza egiteko. Lanean hasteko prest. Harremanetarako zenbakia: 663 48 84 38.

Pertsona eskaintzen da pertsona helduak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Externa, orduka, gauetan edo ospitalean gauak egiteko prest. Harremanetarako zenbakia: 634 27 81 98.
 Ikasturte berri honetan haurrak zainduko nituzke, eskolara sartu aurretik. Harremanetarako zenbakia: 630 68 27 16.

SALEROSKETA
SALDU
 Paseorako bi txirrinda saltzen ditut, ehun eurotan biak. Harremanetarako zenbakia: 670 60 74 95.
 Bizikletari lotzeko erremolke doblea salgai. Interesik bazenu, deitu lasai. Inongo konpromisorik gabe probatu daiteke. Eskiatzeko eta gerrian lotuta ibiltzeko ere balio du. Gurruplak eta eskiak barne. Oso ondo zaindua. 300 euro.
 Harremanetarako zenbakia: 670 20 78 14, Amaia.



NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak kobratuko dira soilik

TAMAINA BERRIA
 Modulo txikia. 12€ (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA
 Modulo handia. 20€ (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus 646.824466

ESKELA


ESKELAK JARTZEKO

TEL: 943 37 14 48
 edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**
 ► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

Txintxarri: doan eta euskaraz
 Lasarte-Oriako etxe guztietan **943 37 14 48**

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea
 Ttakun Kultur Elkarte
 Geltoki kalea 4 (behea)
 20160 Lasarte-Oria
 G-20407557

Administraria
 Nerea Garziarena.

Erredakzioa
 Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez,
 Maddi Zaldua eta
 Maitane Aldanondo.

Publizitatea
 Irati Zatarain.

Laguntzaileak
 Gorka Lasa, Asier Odriozola,
 Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
 Maitane Rebe, Julen Basterra,
 Nerea Segura, Lierni Rekondo
 eta Aizpea Amas.

Banatzzaileak: Igone Mendizabal,
 Olatz Bardaji, Lide Hidalgo, Uxue
 Odriozola, Julene Iraola, Egoitz
 Epelde, Sergio Hernandez, Ander
 Hazas eta Iñigo Garcia.

Informatika zerbitzuak
 IZI Informatika.

PUBLIZITATEA
 Geltoki kalea 4 (behea)
 Tel.: 943 37 14 48 (106)
 WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA
 Ttakun Kultur Elkarte
 Geltoki kalea 4
 Tel.: 943-37 14 48 (104)
 WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia
 Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.500 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
 UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.



LASARTE-ORIA Auto klasikoaren rallya. Lasarte-Oriako autoen zirkuitu ezagunari keinua egingo diote. San Sebastian Circuit Spirit-ek kirol ibilgailuen zein klasikoaren 4. rallya antolatuta du. Pandemia tarteko, automobilien erakusketarik ez dute egingo, eta behin bakarrik zeharkatuko dute herria. Udalak azpimarratu du ekitaldiak ez duela eraginik izango garraio publikoaren zerbitzuan. Automobilak Donostiatik aterako dira, 10:30ean, eta ordu erdi geroago hasiko dira Lasarte-Oriara iristen. Michelin lantegitik sartuko dira udalerrira, Geltoki kalea igaroko dute, eta Kale Nagusian barrena Zirkuitu Ibilbideraino iritsiko dira. Italiar erako erregulartasun proba egingo dute han, Oriako zuzengunean; 340 metro izango ditu luze. Urriaren 2an, Donostiatik irten eta Zirkuitu Ibilbidera.

LARUNBATA 2

LASARTE-ORIA Ikuskizuna

Pirritx, Porrotx eta Marimotots-ek *Amaren Intxaurrak* ikuskizuna eskainiko diete herriko haurrei. Heriotzaren gainean hausnartuko dute gaztetxoek, irri, kantu eta dantzaren bidez. Kultur etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Rallya

San Sebastian Circuit Spirit-ek kirol ibilgailuen zein klasikoaren 4. rallya antolatuta du. Pandemia tarteko, automobilien erakusketarik ez dute egingo, eta behin bakarrik zeharkatuko dute herria. Donostiatik, 10:30ean.

IGANDEA 3

LASARTE-ORIA Zinema

Space Jam: Aro Berrira filma ikustera joateko aukera izango dute etxeko txikiak. Sarrerak kultur etxeko leihatilan daude salgai daude, 3,80 euroren truke. Kultur etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

Lasarteoriarrek *Chavalas* filma ikustera joateko aukera izango dute.

Sarrerak kultur etxeko leihatilan salgai daude, 3,80 euroren truke. Kultur etxea, 19:30ean.

OSTEGUNA 7

LASARTE-ORIA Aste Kulturala

Semblante Andaluz elkarteak Aste Kulturala egingo du urriaren 7tik 12ra. Prestatu dituzten jarduerak Okendo plazan egingo dituztela iragarri dute. Okendo plaza, urriaren 7tik 12ra.

OSTIRALA 8

LASARTE-ORIA Zinema

Okendo Zinema Taldeak *Nora* filma ikustera aukera eskainiko die herritarrei. Sarrerak salgai daude dagoeneko, kultur etxeko leihatilan, 5,50 euroren truke. Kultur etxea, 19:30ean.

IGANDEA 10

LASARTE-ORIA Zinema

Peter Rabbit 2: a la fuga filma ikustera joateko aukera izango dute etxeko txikiak. Sarrerak kultur etxeko leihatilan daude salgai daude, 3,80 euroren truke. Kultur etxea, 17:00etan.

Kultur etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

Lasarteoriarrek *Nora* filma ikustera joateko aukera izango dute. Sarrerak kultur etxeko leihatilan daude salgai daude, 3,80 euroren truke. Kultur etxea, 19:30ean.

ASTEAZKENA 13

LASARTE-ORIA Opera

Opera zaleek hitzordua izango dute. Giuseppe Verdi-ren *Il Trovatore* obra digitala ikustera aukera izango dute. Sarrerak salgai daude honezkeroko, kultur etxeko leihatilan, 7,50 eurotan. Kultur etxea, 19:00etan.

OSTEGUNA 14

LASARTE-ORIA

DravetZari erakusketak atek zabalduko ditu. Gero Axular Kultur Taldeak eta Apoyo Dravet elkarteak elkarlanean sortu duten proiektua da, eta Dravet sindromeaz kontzientziatzea eta kultura inklusiboa sustatzea ditu helburu. la hilabete amaierara arte izango da jarduera bisitatzeko aukera.

Antonio Mercero aretoa, 17:00etatik 21:00etara.

ZINEMA

USURBIL

URBIL

Dune

Ostirala: 16:55, 18:15, 20:25, 21:45.
Larunbata: 16:55, 18:15, 20:25, 21:45.
Igandea: 16:55, 18:15, 20:25, 21:45.

Cry Macho

Ostirala: 22:40.
Larunbata: 22:40.
Igandea: 22:40.

La Patrulla

Canina: la película

Ostirala: 15:55.

Larunbata: 15:55.
Igandea: 15:55.

Shang-Chi y la leyenda de los Diez Anillos

Ostirala: 16:10.
Larunbata: 16:10.
Igandea: 16:10.

Maixabel

Ostirala: 16:15, 18:40, 19:15, 22:05.
Larunbata: 16:15, 18:40, 19:15, 22:05.
Igandea: 16:15, 18:40, 19:15, 22:05.

No respire 2

Ostirala: 19:25,

21:55.
Larunbata: 19:25, 21:55.
Igandea: 19:25, 21:55.

Mediterraneo

Ostirala: 16:30, 22:15.
Larunbata: 16:30, 22:15.
Igandea: 16:30, 22:15.

Sin tiempo para morir

16:50, 17:55, 19:15, 20:30, 21:35.
Larunbata: 15:45, 16:50, 17:55, 19:15, 20:30, 21:35.

Igandea: 15:45, 16:50, 17:55, 19:15, 20:30,

ANDOAIN

BASTERO

Nora

Larunbata: 19:30, 22:00.
Igandea: 19:30.

Jungle Cruise

Larunbata: 17:00
Igandea: 17:00.

El hijo de Bigfoot

Igandea: 12:00.

OSTIRALA 15

LASARTE-ORIA Antzerkia

Antzerki obra batek hartuko du kultur etxeko oholtza. Proyecto 43-2 taldeak *Viaje al fin de la noche* antzezlanaz ekarriko du. Sarrera doakoa izango den arren, gonbidapenak eskuratzea ezinbestekoa da. Kultur etxea, 20:00etan.

LARUNBATA 16

LASARTE-ORIA Antzerkia

La Chirigota de los Daddy Cadi taldeak, *Lo siento Patxi, no todo el mundo puede ser de Euskadi* lana eskainiko du. Sarrerak 12,50 eurotan daude salgai. Kultur etxea, 19:30etan.

IGANDEA 17

LASARTE-ORIA Literatura

Islada Ezkutatuak taldeak *Testigantzak* liburua aurkeztuko du. Kultur etxea, 12:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

La patrulla canina: la película ikustera joateko aukera izango dute etxeko txikiak. Sarrerak kultur etxeko leihatilan daude salgai, 3,80 euroren truke. Kultur etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

Herritarrek *Adiós, idiotas* filma ikustera joateko aukera izango dute. Sarrerak kultur etxeko leihatilan salgai daude, 3,80 eurotan. Kultur etxea, 19:30etan.

OSTIRALA 22

Okendo Zinema Taldeak *First cow* filma ikustera aukera eskainiko die herritarrei. Sarrerak salgai daude dagoeneko, kultur etxeko leihatilan, 5,50 euroren truke. Kultur etxea, 20:30etan.

LARUNBATA 23

XVII. Dantza Zirkuituaren barruan *Higa* emanaldiaz gozatzeko tarteak izango dute danta zaleek. Sarrera doakoa izango den arren, gonbidapenak eskuratzea ezinbestekoa da. Kultur etxea, 19:30etan.

IGANDEA 24

LASARTE-ORIA Zinema

Ninja a cuadros 2 filma ikustera joateko aukera izango dute etxeko txikiak. Sarrerak kultur etxeko leihatilan daude salgai daude, 3,80 euroren truke. Kultur etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

Lasarteoriarrek *Dune* filma ikustera joateko aukera izango dute. Sarrerak kultur etxeko leihatilan daude salgai daude, 3,80 euroren truke. Kultur etxea, 19:30etan.

ASTELEHENA 25

LASARTE-ORIA Ipuin kontalaria

Bea Egizabal ipuin kontalariaren saioaz gozatu ahal izango dute gaztetxoek. Kultur etxea, 18:00etan.

Badator GAZTE KLUBA!
Urriaren 1etik aurrera

doan

2021-2022 LH3-LH4-LH5-LH6

Ostiralero
17:30-19:30

LAGUNEKIN, KUADRILLAN

- Sukaldaritza
- Magia
- Eskulanak

NATUR EKINTZAK, KIROLA, ESPERIMETUAK, ABENTURA JOLASAK

LH3-LH4:
Inigo de Loyola kaleko plazan

LH5 eta LH6:
Oriarte (REM) eraikina

Asteburuetan eta oporraldietan ekintza bereziak eta irteerak!

Izen ematea: www.labur.eus/gzk2122 | aisia@ttakun.eus
Geltoki kalea, 4 | 943-37 14 48 - 695 78 53 92

Mintza POZA
PRAKTIKATU

EMAN IZENA!

URRIAN ETA URTARRILEAN

solaskide

Eman izena urriaren 30a baino lehen:
Ttakun Kultur Elkarte | LASARTE-ORIA
kultura@ttakun.eus 943-37 14 48 • 695 78 53 89

Antolatzaileak

Izena eman Lasarte-Orian!

2021-2022 ikasturtea

Akademia

zitek zientzia eskola

- ZIENTZIAK • HIZKUNTZAK
- BANAKAKO ZEIN TALDEKAKO KLASEAK
- AURREZ AURREKO SAIOAK EDO ONLINE

ZUK AUKERATU!!

Tel: 943-36 31 06
Goikale 12, behea LASARTE-ORIA
www.zitek-akademia.com • info@zitek-akademia.com

Euskaltegia

eman izena!

aek
euskara praktikoa

A1, A2, B1, B2, C1 eta C2
• AURREZ AURRE eta AUTOIKASKUNTZA bidez.
• MINTZA-TALDEAK:
Astean 2 egunez.
Muntteri AEK euskaltegia
Geltoki kalea 17, behea, 20160 Lasarte-Oria
• 607 62 52 33 • lasarte@aek.eus
www.muntteri.blogspot.com

Dantza

Plaza dantza

Lehen saioa: asteartea, urriak 5, 20:00etan.
Tokia: Sasoeta-Zumaburu ikastetxea (Sasoeta eraikineko gimnasioan)
Informazioa:
kultura@ttakun.eus
943-37 14 48 • 695 78 53 89

TXINTXARRI aldizkarian zure publizitatea agertzeko, jar zaitez gurekin harremanetan:
943-37 14 48 (106) / 646 82 44 66 | publizitatea@ttakun.eus